



SENTSIBILIZAZIO JARDUNALDIAK

URRIAK 14-20, ERMUA

**Osasunaren merkataritzak
pobrezia areagotzen du**

Egitaraua

Urriak 15 asteartea

ZINEMA: “**El jardinero fiel**”, Fernando Meirelles-ena
20:30etan Ermua Antzokian.

The Constant Gardener [ingelesezko izenburu originala] John Le Carréren izen bereko eleberri batean oinarrituta dago 2005eko filma da eta Ralph Fiennes y Rachel Weisz ditu aktore nagusiak, azken honek Aktorea Onenari emandako Oscar-ra lortu zuelarik. Filmak Nigerian benetan gertaturiko mediku-esperimentazio proba azaltzen du



Urriak 16 asteazkena

HITZALDIA. “**Industria farmazeutikoa eta osasun eskubidea**”. **JOAN ROVIRA**-rekin, Bartzelonako Ekonomi Zientzietako irakasle emeritua eta osasun ekonomian aditua, Kataluniako “Justicia i Pau” erakundeko “Justicia eta Osasuna” baztordeko kidea eta osasun publikoaren aldeko “Ez Eskerrrik Asko Plataforma”ko partaidea.

19:00etan Lobiano Kulturgunean.



Ermuko ikastetxeetan hainbat ekintza burutuko dira aste osoan zehar.

Antolatzaileak

Eguarbitza Misio Taldea, Caritas,
Urko-punta, Komite Internazionalistak,
Maishule, Asociación de Amigos/as del Pueblo Saharaui.
Ermuko Senegaldarren Elkarte

Babeslea



Ayuntamiento de Ermua
Ermuko Udala



Osasun eskubidea

Arreta eta botikak jasotzeko guztion eskubidea

Osasun eskubidea guztiok gozatzen al dugu? Zoritxarrez, ez. Bi urte barru Milurteko Garapen Helburuak (MGH) betetzeko epea bukatuko da; horien artean hiruk heltzen diote osasunari: haurren heriotza-tasa murriztea, amen osasuna hobetzea eta VIH/Hiesa, malaria eta beste gaixotasun batzuk borrokatzea.

Konpromiso horiek hartu zirenetik behin eta berriz garatu dira ekimenak, eta, benetan, egin dira zenbait aurrerapauso, baina ez dira nahikoak. Gobernuen benetako borondatea falta da MGHak lehentasun politikotzat jotzeko eta horren arabera jokatzeko.

Lurralde pobretuetako milioika lagunen osasun arreta eta botikak eskuratzeko ahalmen eza apenas arintzen dute Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) ekintzak eta haien boluntarioen kanpaina humanitarioek. Gainera, ditxosozko krisiaren aitzakiarekin garapenerako laguntzetan izandako azken murrizketek asko kaltetu dute laguntza hori.

Aldeak nabarmenak dira



ZENBAIT DATU

Afrikan, **1 eta 30** botikari bitarteko ratioa dago milioi bat biztanleko; Asian, **10 eta 70** bitartekoa; Europan eta Ipar Amerikan, berriz, **150 eta 940** bitartekoa.

Tanzanian, batez beste **500 orduz** egin behar da lan tuberkulosiaren kontrako tratamendu oso bat ordaintzeko; Suitzan, berriz, **1,4 ordu** baino ez dira behar gaixotasun horri berari aurre egiteko.

Saharaz azpiko Afrikako herrialdeetan, erditzean, **1.000 haurretik ia 100** hiltzen dira; munduko errenta handieneko herrialdeetan, berriz, kopuru hori **5era baino gutxiagora** murrizten da.



Desberdintasun izugarri hau arintzeko, botikak jasotzeko ahalmena funtsezko Giza Eskubidetzat jo behar da, nazioartean eta konstituzioan aitortpen osoa jasota.

Eskubide hau bermatzeko orduan jendarteak aurre egin beharreko arazo handietako bat da bai ikerketa, bai botiken ekoizpena eta merkataritza, enpresa pribatuen eskuetan daudela, eta horiek beren etekinei begiratzen dietela, ez eskubideen bermeari. Horrek eragiten du edozein botika mota ekoitzi eta diseinatzeko orduan industria farmazeutikoak mundu aberastuan izan ohi diren gaixotasunak lehenestea, gaixoei ordain ditzaketenak, askotan induzituak edo “irudizkoak”, eta osasun arreta bermatuta eta diruz lagunduta dutenei ematea lehenetsuna.

Hala, 2000. urtean gaixotasun infekziosoetarako prestatzen ari ziren 137 botiketarik, 1ek baino ez zuen aipatzen malaria gaitz gisa, eta beste batek loaren gaixotasuna aipatzen zuen. Alabaina, urte hartan bertan 8 botika garatu ziren inpotentzia eta zutitzearen disfuntziorako, 7 loditasunerako eta 4 loaren nahasteetarako.

Ikerketa etekin ekonomikoaren mende dago. Industria farmazeutikoari interesatzen zaiona ez da gaixotasuna sendatzea, baizik eta merkatu handi bat irekitzea. Haren filosofia gaixotasuna tratatzean datza, mendekotasuna sortuz, sendatzean baino, hipertentsiorako, kolesterolerako, diabeterako eta gaixotasun kroniko gehienetarako botikekin gertatzen den bezala; bitartean, pobreei jasaten dituzten gaixotasunek, esaterako, milioika hegoamerikarrek pairatzen duten Chagasen Gaitzaren fase kronikoak, ez dute inolako aukera terapeutikorik.

“Pazientea sendatzen duten produktuek merkatua hiltzen dute”

2004an Estatu Batuetako industria farmazeutikoari buruz egindako azterketa baten arabera, guztira 57.500 milioi dolar gastatu ziren haren produktuen sustapenean, eta 31.500 milioi dolar besterik ez botika berrien garapen eta ikerketan.



Pacientes vs Patentes

¿Qué derechos prevalecen?

farmacriticxs.ifmsa-spain.org/esp

Patenteak, monopolioak, gehiegizko ustiapena...

Kolonialismo forma berriak

Bayer enpresak etekina jaso du Kenyako Ruiru lakuan andui bakteriano bat deskubritzearen ondorioz, horrekin diabetesa tratatzeko botika bat fabrikatu baitu. Botika horren salmenten ondorioz 380 milioi dolar baino gehiago irabazi ditu. Bayer taldeak ez dio ezer eman ordainetan Kenyari. Bayerrek egitateak onartu zituen, baina zera esanez defendatu zuen bere burua: botikaren jatorria Kenyako andui bakterianoa izan arren, bere garapen bioteknologikoak azkenean erabat desberdina izatea eragiten du, *“guk patentatu duguna ez da andui bakterianoa, baizik eta azken produktua”*. Afrikako bioaniztasunaren hitzarmenaren urraketek buruzko azterketa baten ikertzaile arduradunak bestelako ondorio batera heldu dira: *“Kolonialismo forma berri baten aurrean gaude”*.

Kolonialismo forma berri hau nabarmen geratzen da herrialde pobreetako gaixoak ez direnean kontuan hartzen botika berrien ikerketa-lehentasunak erabakitzeko orduan; gainera, akuri gisa erabiltzen dituzte -bereziki Afrikan- osasun informazioak eskuratzeko, eta, tarteka, hil egiten dira.

Kenyan ere, Washingtoneko Unibertsitatearen ardurapean, laurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran azterketa klinikoak egin ziren HIESaren bilakaera behatzeko. Agian berdin-berdin hilko zirelako aitzakiarekin, afrikar ugariri proba osagarriak egin zitzaizkien hil arte okerrera nola egiten zuten aztertzeko, infekzioak aurrera egin ahala, berau gelditu zezakeen botika inolako unetan eskaini gabe.



2003an, Brasilen, botiken patenteen liberalizazio garai baten ostean, hiesaren epidemia egonkortu egin zela egiaztatu zen, heriotza-tasa erdira murriztuta enpresa farmazeutiko handiek patentaturiko 12 erretrobiraletatik 8ren baliokide generikoak bertan ekoiztearen ondorioz. Gainera, batez besteko kostuen %79 murriztuta. Beste herrialde batzuetan ere, Indian, kasu, antzeko zerbait gertatu zen.

Hiesarekin loturiko heriotzak poliki murrizten ari dira; 2005ean gehieneko 2,2 milioitik 2010ean kalkulaturiko 1,8 milioira.

Halere, 2001 eta 2010 artean, hiesarekin loturiko heriotzak hamaika bider gehitu dira Ekialdeko Europan eta Erdialdeko Asian, eta bi bider baino gehiago Ekialdeko Asian. Era berean, %60 gehitu dira Ekialde Ertainean eta Ipar Afrikan.

Kalkulatzen da 2010. urtearen bukaeran oraindik 34 milioi lagunek zutela GIB.

Enpresa handiek monopolizaturiko botikekin lehia lezaketen produktu alternatibo naturalak haien eskuetan erori dira Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) Codex deritzon legeriari eta Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) patenteei esker. Planetako sendabelarren %80ren "jabeak" 14 enpresa baino ez dira. Erabateko monopolizazio egoera hau aurrez aurre dago globalizazioaren buruzagiek hainbeste eskatzen duten merkatu askeko arauekin.

Urtero hamaika milioi lagun hiltzen dira gaixotasun infekziosoen ondorioz; heriotza horiek ekidin egin litezke botika oinarritzkoenak guztion eskura egongo balira.

Botiken prezioa, batez beste, lehia egoera batean izango litzatekeena baino hamabost aldiz handiagoa da.

"OSASUN BALIABIDEEN %90 GAIXOEN %10i (Lehen mundukoei) ERAGITEN DIETEN GAIXOTASUNAK IKERTZERA BIDERATZEN DIRA, ETA BALIABIDEEN %10 BAINO EZ DIRA BIDERATZEN GAIXOEN %90i ERAGITEN DIETEN GAIXOTASUNAK IKER-TZERA. DATU HAU 10/90 DESOREKA IZENAREKIN EZAGUTZEN DA.

Biztanleriaren gehiengoak uste du bere osasuna esku onetan dagoela. Zalantza barik sinesten du osasun erakundeek gaixotasunen eta haiei aurre egiteko modu desberdinen inguruan esaten digutena. Kolokan jarri ezin diren dogmak sinesteko doktrinatu gaituzte, izan ere, kolokan jarri dituzten lagun gutxiak hondatuta ikusi dituzte euren ibilbide profesionalak. Osasunaren Inkisizio berriak, multinazional farmazeutikoek babestuta, ez du onartzen inork plazara ditzan bere harresi zeharkaezinen atzean ezkutaturiko haren negozio mafioso eta interes ilunak.



Guztion ongirako politika baterantz

Aurreko guztiagatik, zera ondorioztatzen dugu:

- 1** Funtsezko botikak jasotzeko ahalmena Funtsezko Giza Eskubidea dela.
- 2** Osasun arreta eta botikak ez direla beste edozein merkantzia bezalakoa, eta bizitzak salbatzeko gaitasuna duten neurrian ondasun publikoa izan behar dutela.
- 3** Beraz, beharrezkoa dela osasunaren ikerketa, ekoizpena eta merkataritzak guztiok hartzea kontuan, edozein izanda ere egoera ekonomiko edo geografikoa.
- 4** Ez dituztela "ahaztu" behar herrialde pobretuetako pertsonekin loturiko gaixotasunak.
- 5** Eta nahitaezkoa dela merkatuak arautzeko politikak ezinbestean eta beste ezeren gainetik "Guztion ongirako politikak" izatea.